

2023ko

iraunkortasun

memoria



ETORKIZUNA HOBETZEKO, IRAUNKORTASUNA
ETA BERRIKUNTZA



Aurkibidea

2023ko iraunkortasun memoria

ETORKIZUNA HOBETZEKO, IRAUNKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA

LEHENDAKARIAREN GUTUNA



03 orr.

FAGOR GARA



04 orr.

TALDE LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA GARA



10 orr.

LURRALDEAN ERROTUTAKO TALDE DEMOKRATIKOA GARA



18 orr.

PERTSONAK ERDIGUNEAN DITUEN TALDEA GARA



27 orr.

PLANETAREKIN KONPROMETITUTAKO TALDEA GARA



38 orr.

GARAPEN KOMUNITARIOA BULTZATZEN DUEN TALDEA GARA



48 orr.

Pandemiaren ondorioak eta Ukrainako gerrak energia sektorean izan zuen inpaktuaren okerrean atzean utzita, 2023. urtea aurrekoak baino hobea izan dela esan genezake. Ekaitzaren ondorengo nolabaiteko barealdi bat bizi izan dugu 2023. urtean zehar, nahiz eta, oraindik ere, hodei beltzak antzematen diren ortzimugan. Bizitako hobekuntza honek bere isla izan du urteko emaitzetan. Irabazi kontsolidatuak 75 milioi eurokoak izan dira, 2022. urtekoak baino %63 handiagoak. Finantza ratio nagusiek ere hobera egin dute, Taldeko kooperatiben sendotasun finantzarioaren erakusle.

Testuinguru horretan, 2021. urtean onartutako Fagor 2030 iraunkortasun estrategia garatzen jarraitu dugu, zenbait alorretan, aurrera pauso esanguratsuak emanez. Besteak beste, gure ehun industrialak eraldatzea helburu duen Hirekin berrikuntza eta ekintzailtza zentroaren aldeko apustuan sakondu dugu, Gizabidea Fundazioaren bidez 250.000 euroko ekarpen berri bat eginez eta zentroaren orientazio estrategikoa zehaztuko duen aholkularitza mahaian parte hartuz. Hirekinek rol garrantzitsua jokatu du gure egungo negozioen eraldaketan, ekintzailtza eta dibertsifikazioaren bidez, gure negozio eta produktuak etorkizuneko ekonomia digital eta zirkular baten testuingurura egokitu ahal izateko.

Bestalde, Fagor Etxetresnetako bazkide ohien kontsolidazio prozesuarekin jarraitu dugu, kolektibo horri behin betiko irtenbidea eskaintzeko gure konpromisoa berretsiz. Bazkietza berriak egin ditugu.

Azpimarratzekoa da, baita ere, gure karbono aztarnaren kudeaketari dagokionean egindako aurrerapena. Karbono aztarna murrizteko ibilbide orriak zehazteari ekin diote gure kooperatibek, eta, Fagor Ederlanen kasuan, SBT (*Science Based Targets*) inizatibaren oniritzia jaso du, bermatuz zehaztutako murrizte helburuak bateragarriak direla Parisko akordioan finkatutako helburu orokorrekin. Zalantzarik gabe, mugarri bat da ingurumenarekin daukagun konpromisoari dagokionean.

Azkenik, balioan jarri nahi nuke Fagorrek gizarteari egiten dion ekarpena. 2023. urtean zehar 2,6 milioi euro bideratu ditugu gure Gizarte funtsetik hainbat gizarte ekimenetara, eta, diru ekarpenak egitetik harago, inplikaturik jarraitzen dugu gure lurraldeak iraunkortasunerantz egin behar duen trantsizioarekin, askotariko ekimenetan parte hartuz eta komunitatearen ahalduntze eta autoeraketarako baldintzak sortzen lagunduz.

Eta ez nuke bukatu gura esku artean duzuen memoria honetan jasotzen den guztia posible izan dadin zuek guztiok egiten duzuen ekarpena balioan jarri eta eskertu gabe, azken finean, FAGOR markatik harago, Taldeko pertsonak garelako egunez egun etorkizuna hobetzeko lanean dihardugunak. Beraz, mila esker.

Besterik barik, orain arte egindakoa eta memorian jasotakoak bide oparoaren adierazle direnaz konbentziturik agurtzen zaituztet, lanean segitzeko konbikzioa berretsiz.

Agur bat.

JOXEAN ALUSTIZA USANDIZAGA
Fagor Taldeko presidentea



FAGOR GARA

Soluzio teknologiko aurreratuak eskaintzen dizkiegu mundu osoko bezeroei. Talde dibertsifikatua gara, eta produktu katalogo zabala dugu.



Automobilgintzarako osagaiak



Etxetresnetarako osagaiak



Osagai elektronikoak



Deformazio bidezko makina-erreminta



Kontrol eta neurketa ekipiak



Muntaketa prozesuen automatizazioa



Ostalaritza eta sukaldaritzarako ekipamendu industrialak



Garbiketa ekipiak eta hotz komertzialak



Jabetza industrial eta intelektualeko zerbitzuak

➤ Fagor Taldea osatzen dugun **kooperatibak**:



fagorederlandgroup



➤ **Euskal kooperatiba talde industrial handiena gara**, eta, sorreratik, estuki gaude komunitatearekin eta gizarte erronkekin konprometiturik.



8

kooperatiba



10.403

langile



+ 69

egoitza




3

berrikuntza zentro



2,6 M€

konpromiso sozialean



Munduan zehar gaude

Gure kooperatibak mundu osoan daude eta askotariko sektoreetan dihardugu. 69 egoitza baino gehiago ditugu, gure bezeroei behar bezalako arreta eskaini ahal izateko.



Hamaika bezero ditugu

Nazioartekotzearen aldeko apustuak, besteak beste, bezero hauen beharrei erantzuteko aukera eskaintzen digu:




Enpresa egiteko era propioa dugu

Kooperatiba izaera da gure bereizgarri nagusia. Beste enpresa eredu batzuekin alderatuz, hauek dira ezberdin egiten gaituzten ezaugarri nagusiak.

01.

Gobernantza demokratikoa

Fagorren langileak jabe ere bagara, eta gobernu organoetan, [irabazien banaketan nahiz kudeaketan parte hartzen dugu](#), "bazkide bat, boto bat" printzipioan oinarrituz. Horrek, enpresa proiektuarekiko erantzukidetasunez jardutera garamatza, eta epe laburreko banakako interesen gaintik guztion ongizatea eta kooperatibaren epe luzeko egonkortasun ekonomiko finantzarioa lehenestera.



Bazkide bat, boto bat

02.

Ordainsari elkartasuna

Fagorren sortzen dugun [aberastasuna modu solidarioan banatzen dugu](#), ez dadin arrakala handiegirik sortu gehien eta gutxien irabazten dutenen artean.

Zenbat gehiago kobratzen dute zuzendari nagusiek plantillako batez besteko soldatarekin alderatuta?

x 3

Fagor, batez beste

x 174



Ibex 35 enpresak, batez beste

03.

Interkooperazioa

[Emitzak Fagor Taldeko kooperatiben artean banatzen ditugu](#), egoera onenean dauden kooperatibek okerren daudenei laguntzeko. Horrez gain, kooperatibaren batek enplegu arazoak ditutenean, beste kooperatiba batzuetan birkokatzen ditugu lanik gabe dauden pertsonak.



Aurrerakin maila konpentsatzeko funtsa

1.514.830 €



Emitzen birbanaketa egiteko funtsa

3.782.360 €

04.

Gizarte konpromisoa

[Gure irabazien %12 bideratzen dugu Gizarte funtsera](#), eta, hortik, hainbat gizarte ekimen zein proiektu sustatzen eta laguntzen ditugu.

4.471.590 €

Gizarte funtsera bideratutako dirua

Mondragonen parte gara

Mugimendu baten parte gara, kooperatiba talde handiago baten parte. Mondragon korporazioaren sorburua gara, munduko korporazio kooperatibo handienarena. 80 kooperatibak baino gehiagok osatzen dute, 140 filial baino gehiago ditu bost kontinenteetan, eta lau negozio-arlotan dago antolatuta: Finantzak, Industria, Banaketa eta Ezagutza. Mondragonek, bere unibertsitatea eta 12 ikerketa eta garapen zentro ditu, kooperatibak talentuz hornitzeko eta haien berrikuntza estrategiak bultzatzeko. Nazioartean, lehiakortasun inklusiboko eredutzat hartzen da korporazioa.

Orotara, Mondragoneko kooperatibok 11.000 milioi euro fakturatu ditugu 2023an 70.000 pertsona baino gehiagok egindako lanari esker. Pertsona horien %39 industriaren alorrean dabil.

Mondragonen baditugu lankidetzarako eta elkartasunerako hainbat mekanismo, erresilienteagoak egiten gaituztenak eta lehiarako gaitasun handiagoa eskaintzen digutenak.

01. EMAITZEN BIRMOLDAKETA

Emaizta positiboak dituzten kooperatibek beren irabazien ehuneko bat ematen dute ekitaldia emaitza negatiboekin amaitu duten kooperatiben galeren zati bat konpentsatzeko, eta, horrela, haien susperraldi ekonomikoan laguntzeko. Taldeko kooperatiba guztiak izan badituzte emaitza positiboak, euren artean banatzen da etekinen zati bat, irabazi handienak zein txikiagoak izan dituztenen arteko elkartasun ariketa gisa.

02. ENPRESA GARAPENERAKO LAGUNTZA

Mondragoneko kooperatiba guztiak emaitza positiboaren %5aren baliokidea den inbertsio bat egiten dute urtero Mondragon Inversiones, S. Coop.-en. Besteak beste, kooperatiben nazioarteko hedapenean laguntzeko eta hazkunde prozesuetan enpresa proiektuak bultzatzeko erabiltzen da hori, baita kooperatiben ondare egiturak indartzeko ere.

03. ENPLEGURAKO LAGUNTZA

Mondragoneko kooperatibok, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko erakunde bateko kide gara (LagunAro). LagunAro, kooperatibetako bazkideek (mutualistek) egindako ekarpenekin eratutako funts bat kudeatzeaz arduratzen da, eta hainbat prestazio eskaintzen ditu. LagunAroren enplegurako laguntza, kooperatiben arteko lankidetzaren mekanismo klasikoetako bat da. Langileak birkokatze eta bestelako prestazio ekonomikoak emateko irtenbideak dira, langabeziak kooperatibetan dituen ondorioak arintzera bideraturikoak.

➤ **Lankidetzaren mekanismoei esker** erresilienteagoak gara eta lehiarako gaitasun handiagoa dugu



Iraunkortasunarekin konprometiturik gaude

Fagor 2030 iraunkortasun estrategia dugu onartuta. Honela daukagu zehaztua 2030. urtera begirako bisioa:

Talde kooperatibo industriala, lehiakorra eta berritzailea, enpresa egiteko daukan modu demokratiko, inklusibo eta iraunkorragatik ezaguna. Kide izateaz harro dauden pertsonak osatzen dute, giza garapen iraunkorrean nazioarteko erreferentzia den lurraldean.

Gure proiektu kooperatiboa berritzeko aukera moduan ikusten dugu iraunkortasuna, eta aitzindari izan nahi dugu kooperatibismoa hark ezaugarritutako garai berrira egokitzeko prozesuan. Hori horrela, bost konpromiso nagusi ditugu geure eginak.

Konpromisoak

01.

Gure negozioak eraldatzea, ekonomia digital eta iraunkor baten testuinguruan lehiakorrak izan eta enplegua sortzen jarraitzeko.

02.

Gure gobernantza eredu demokratikoa hobetzen eta garatzen jarraitzea.

03.

Testuinguru egokiak sortzea, gure pertsonak beren onena eman dezaten.

04.

Gure produktu eta ekoizpen prozesuek ingurumenean sortzen duten inpaktua murriztea.

05.

Gizartearen autoeraketa sustatzea, Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko.



 Etorkizuna
hobetzeko
lanean

FAGOR 

**Talde lehiakorra eta
berritzailea gara**



TALDE LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA GARA


Enpresa lehiakortasuna lankidetzarekin eta justizia sozialarekin uztartzen jakin duen talde kooperatiboa gara. Enpresa, hain zuzen, bazkide langileen, eta, oro har, gizartearen, beharrak asetzeko tresna da; eta lehiakorra eta errentagarria izan beharra du haren eginkizuna betetzeko.



Banatu egiten dugu sortutako aberastasuna

Honako hauek dira Fagor Taldeko emaitza ekonomiko nagusiak:

	2021	2022	2023
Fakturazioa	1.482 M€	1.819 M€	1.756 M€
Irabazi kontsolidatuak	57,97 M€	46,19 M€	75,36 M€
Irabaziak Euskal Herri mailan	41,01 M€	39,93 M€	54,80 M€
Irabazi kontsolidatuetatik Euskal Herrian geratzen den %	%71	%86	%73
Finantza zor garbia/EBITDA ratioa	1,70	1,88	1,26
Independenzia ratioa	0,68	0,67	0,74



Independenzia ratioa (red line), Finantza zor garbia/EBITDA ratioa (orange line)

➤ Salmentekiko **%4,3ko irabaziak** izan ditugu

Honela banatu dira Fagor Taldeko kooperatibek **mundu mailan izaniko irabaziak**:



1.756.296.000 €

Fagor Taldeko kooperatiben artean mundu mailan **fakturaturutakoa**



75.361.000 €

Fagor Taldeko kooperatiben artean mundu mailan **irabazitakoa**



20.557.140 €
Filialetan geratzen dena



54.803.860 €
Euskal Herrian geratzen dena



5.877.450 €

Mondragoneko elkartasun mekanismotara bideratuakoa

1.514.830 €


Fagor Taldeko ordainsari elkartasun funtsa

47.411.580 €

Banatzeko geratzen dena



- Bazkide langileei**
24.582.425 €
- Erreserba funtsetara**
18.432.985 €
- Gizartera**
4.396.170 €



➤ **4,4 M€** bideratu ditugu **gizartera**

3.782.360 €

Fagor Taldeko emaitzen birbanaketa

Salmentak
↓ %3

Irabazi kontsolidatuak
↑ %63

↑ Independenzia ratioa

↓ Finantza zorra



GURE KONPROMISOA

Gure negozioak eraldatzeko lanean jarraitzen dugu, ekonomia digital eta zirkular baten testuinguruan lehiakorrak izan gaitezten eta enplegua sortzen segi dezagun.

Talde lehiakorra eta berritzailea gara

GURE KONPROMISOA

Berrikuntzan sakontzea, negozioak eraldatzeko

Berrikuntza funtsezkoa izango da etorkizuneko ekonomia digital eta iraunkorrera egokitu ahal izateko. Berrikuntza eredu irekian sinesten dugu, eta inguruko eragileekin ari gara elkarlanean berrikuntza ekosistema eraikitzeke eta gure kooperatiben eraldaketa bizkortzeko.

2023. urtean zehar, askotariko berrikuntza proiektuekin jardun dute Fagorreko kooperatibek. Adibide ugari daude.

FAGOR ARRASATE

Fabrika adimendunarekin lotutako proiektuetan sakontzen jarraitu du, batez ere, makinaren konektibitatean eta digitalizazioan, eta eskaini daitezkeen zerbitzu aurreratuetan. Horri loturik, Savvy Data Systemsen kapitalean sartu da, makinetako datuak informazio bihur daitezen gaitasun teknologiko berriak garatzeko, bezeroei beren prozesuen lehiakortasuna optimizatu eta hobetzeko aukera emanaz.

COPRECI

Harmony proiektu europarrarekin egin du bat. Lur arraroko imanen birziklagarritasunean sakontzea du helburu. Harekin bat eginda, hondakin fluxuetatik eratorritako lur arraroko imanen berreskuratzea eta birziklatze efizientea ahalbidetuko dituzten soluzio berritzaileei ekarpen esanguratsua egiteko konpromisoa hartzen du kooperatibak. Proiektua bat dator Europar Batasunaren Ekintza Planarekin (2020); eta lur arraroei loturiko hornikuntzan Txinarekiko dagoen dependentzia murriztea bilatzen du.

FAGOR ELECTRÓNICA

Diosic berrikuntza proiektuaren lanketari ekin dio. Egitasmoa aitzindari da silizio karbuzko substratuak darabiltzaten erdieeroaleen garapenean, eta, besteren artean, tenperatura eta presio isostatiko zein korrante intentsitate altuak darabiltza horretarako. SiC potentziako diodoak oso erabilgarri dira energia berriztagarrietan eta ibilgailu elektrikoetan. Beste enpresa batzuekin elkarlanean ari da proiektu honetan, erdieeroaleen sektorean urrats berri bat eginez.

FAGOR INDUSTRIAL

Energia eta uraren aurrezpenean hobekuntza nabarmena dakarren ontzi garbigailuetako modelo berria merkaturatu du 2023. urtean. Gainera, produktu hori ekoizteko puntako teknologia izango duen planta berria eraikitzen ari da Oñatin (Gipuzkoa, Euskal Herria) kokatua dagoen bere egoitza nagusian.

FAGOR AUTOMATION

Laserway proiektuan jardun du, manufaktura-industrian erabiltzen diren teknologia konbentzionalak, eraginkortasun gutxiakoak eta ingurumenari kalte egiten diotenak abiadura handiko laser teknologian oinarritutako ekoizpen-lerro malguekin ordezkatzeko.

FAGOR EDERLAN

Auto elektrikoari lotutako piezen eta balazta diskoen estaldurarako teknologia berrien garapenearekin jarraitu du. Lehen lan lerroak, konbustioko motorrari lotutako piezen ekoizpena ordezkatzeko du helburu, eta, bigarrenak, frenatze momentuan ematen den partikula txikien emisioa gutxitzea.

MONDRAGON ASSEMBLY

Elektrolizatzaileentzako mintzen fabrikazio automatikorako teknologiak garatzea helburu duen Europako proiektu batean dihardu. Tecnaliak zuzentzen du proiektua, eta Europa mailan elektrolisiaren bidez hidrogenoa lortzeko teknologietan erreferente diren zentro teknologikoak eta industria-enpresa nagusiak dira haren parte (TNO, VTT, CEA, MCPHY, FRAUNHOFER...).

GALBAIAN

X2.0 proiektuan dago murgildurik, *Impact Builder* bezala. Europa mailako programa honek laguntza eskaintzen die *startupe*ei beren garapenerako. Patente aholkulari moduan dihardu Galbairanek.

HIREKIN: BERRIKUNTZA ETA EKINTZAIETZA ZENTROA.

Hirekin berrikuntza eta ekintzaietza zentroa eraikitzeke lanak 2022. urtean abiatu ziren, eta, aurreikuspenen arabera, 2024an bukatuko dira. Hirekin, lurraldeko industria eraldatzea helburu duen ekintzaietza eta berrikuntza zentroa izango da, ekonomia zirkularrean eta digitalizazioan ardatzuta. Orotara, 10 milioi euroko inbertsioa eskatuko du. Guk, 2 milioi euroko ekarpena egiteko konpromisoa dugu hitzarturik –300.000 euroko ekarpena egin genuen 2022an, eta, 250.000 eurokoa, 2023an–. Gizabidea Fundazioaren bidez egin ohi dugu ekarpena.

Horrez gain, Hirekineko aholkularitza mahaiko kide gara. Zentroko aktibitatearen bitartez, Fagor hainbat sektore eta produktutan dibertsifikatzea da asmoa, gure produktu eskaintza berritzeko.

AKTIBITATE BERRIAK BULTZATZEKO FAGOR TALDEKO SUSTAPEN FUNTSA

Berrikuntza irekiko prozesuetatik sortzen diren proiektuak bultzatzeko sustapen funts bat dugu Fagor Taldean. 2023. urtearen amaieran, 1.844.292 eurokoa zen funts hori.



GURE KONPROMISOA

Hornidura katea iraunkortasunean inplikatzea

Gure negozioak eraldatu ahal izateko, prozesu horretan inplikatutako beharra du hornidura kateak. Hornitzaile ugari ditugu, eta, zentzu horretan, hornidura katearen kudeaketa iraunkorra dugu erronka nagusien artean.

Eta hori guztia nola egituratu ari dira aztertzen kooperatibak, modu mailakatu batean, hornitzaileen kudeaketarako iraunkortasun irizpideak erabiltzen hasteko. Horretan geratu barik, trakzio rola bete nahi dugu Fagor Taldetik lurraldeko industria sarearen eraldaketa iraunkorren.

GURE KONPROMISOA

Enplegua sortzen jarraitzea

Kalitatezkoa eta iraunkorra den enplegua sortzea eta mantentzea da gure helburu nagusia, belaunaldi berriek ere aukera izan dezaten gure kooperatibetara batzeko.


Fagorreko pertsonak



Generoaren arabera




Adinaren arabera



➤ Euskal Herriko **langileen %75 bazkideak** dira


➤ Gure langileen **%59 Euskal Herrian** dago

Kontratu motaren arabera




2023ko irteerak

Jubilazioak



Langileen bilakaera



➤ 2021etik **%27 handitu da gure enplegua**, eta pandemia aurreko mailatik gora gaude

- Besteren konturako langileak
- Birkokatuak
- Iraupen mugatuko bazkideak
- Behin betiko bazkideak





**Lurraldean
errotutako talde
demokratikoa gara**

LURRALDEAN ERROTUTAKO TALDE DEMOKRATIKOA GARA

Ekoizpen baliabideen jabetzan, emaitzetan eta kudeaketan esku hartzen dute gure bazkide langileek, eta Batzar Nagusia da gure organo nagusia. Hartan hartzen ditugu gure etorkizuna zehazten duten erabaki garrantzitsu guztiak.

Aberastasunaren banaketa solidarioarekin batera, izaera demokratikoa du Fagor Taldeak ezaugarri. Gure esperientziak, enpresaren arlora zabaldu du demokrazia, eta “bazkide bat, boto bat” printzipioaren arabera jarduten dugu. Elementu bereizgarri horri esker, erakunde sendoak eraiki ditzakegu, lurraldearekin eta gizartearekin lotura handia izateaz gain, kideei beren beharrak asetzeko eta bizi kalitate onerako aukerak eskaintzen dizkietenak.



Bazkideak gaude gure gobernantzaren oinarrian

Bazkietza izaeraren gainean eraikitzen dugu kooperatiben eta Taldearen gobernua. Kontseilu Errektoreen (kooperatiben gobernu organoek) onarpen beharra duen izaera hori lortzeko, kapital ekarpena egin beharra du norbanakoak. Urtero eguneratzen dugu ekarpen horren zenbatekoa –17.127,74 eurokoa izan da 2023an–. Egin beharreko ekarpena berdina da pertsona guztientzat, erakundearen izango duen lanpostua edozein dela ere.

Hasierako ekarpen hori, izaera izenduna duena, kapital sozialaren parte bihurtzen da. Kapital hori haziz edo murriztuz joango da, bazkietza izaera mantentzen duen urteetan kooperatibak lortzen dituen emaitza ekonomikoen arabera. Irabazi edo galera horiek lan egindako denboraren eta erakundearen duen lanpostuari dagokion indizearen arabera banatuko dira. Bazkidea erretiro adinera iristean edo borondatezko baja hartzean, kapitala itzuliko dio kooperatibak.

Bazkide langile bakoitzak boto bat du, erakundearen duen postua edo kooperatiban duen kapitala edozein dela ere. Kide guztiek esku hartzen dute haien ordezkari organoen eta gobernu organoen aukeraketan, baita sozietatearen etorkizuna erabakitzeke orduan ere. Gainera, bazkide langileak dira ekoizpen bitartekoen jabe.

Bazkietza behin betikoa edo iraupen mugatukoa izan daiteke –lan arloan izandako azken lege erreformaren ondorioz, areagotu egin da iraupen mugatuko bazkide kopurua–. Aldaketa horrek, iraupen mugatuko bazkietza figuraren erregulazioa berrikustea eta eguneratzea ekarri du, kapital ekarpenak, emaitzetan parte-hartzea, gutxieneko eta gehieneko kontratu iraupenak edo langabeziari buruzkoak zehaztuz. 2023an, 550 bazkide berri egin ditugu. Iraupen mugatuko bazkideak dira horiek gehienak.

2023an egindako bazkideak sexua eta adinaren arabera

30 urtetik beherakoak



31 urtetik 50 urtera bitartekoak



51 urtetik gorakoak



Bazkide berriak

2022



2023




Gobernantza egitura propioa dugu

Bazkide langileak daude gure proiektuaren erdigunean, eta horiek dira kooperatiben egunerokoa kudeatzearen eta etorkizuneko bidea eraikitzearen arduradun. Hori oinarrian, hainbat erabakimen organo ditugu Talde mailan.



Gobernu organoak



BATZAR NAGUSIA

Taldeko kooperatiben borondatea adierazteko organo gorena da, kooperatibei eta bazkideei eragiten dieten gaiei buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko eratua.

Taldeko bazkide diren kooperatiba bakoitzak ordezkari bat du 25 bazkide langileko (bazkide kopuru totala txikiagoa den kasuetan ordezkari bat bermatzen da, gutxienez, ordezkari batekin).

Batzarrean aukeratzen dugu Taldeko lehendakaria, Kontseilu Orokorreko burua izango dena.

Batzar Nagusiko ordezkariak lau urterako izendatzen ditugu, eta, bi urtean behin, partzialki berritzen dira.

126 pertsona



KONTSEILU OROKORRA

Taldea ordezkatzeko eta gobernatzeko organoa da. 14 kide titularrek eta Batzar Nagusiak zuzenean hautaturiko lehendakariak osatzen dute. Taldeko administrazio organoa da, lehen mailako kooperatibetako Kontseilu Errektoreen baliokidea. Kooperatiba bazkide bakoitzak kontseilari bat du gutxienez; eta kooperatiben bazkide langile kopuruaren arabera izendatzen dira gainerako kideak. Kontseilu Orokorrean bertan aukeratzen dira lehendakariordea eta idazkaria, organoa osatzen dutenen artean.

15 pertsona



ZAINTZA BATZORDEA

Organo honek, batez ere, ahalmena du urteko kontuak berrikusteko, eta, Batzar Nagusian aurkeztu aurretik, soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko txostena egiteko. Horrez gain, hauteskunde prozesuak zaintzea eta horien egokitasuna bermatzea dagokio, baita Batzar Nagusian boto eskubidearen inguruan izan litezkeen gorabeherak ebaztea ere.

Hiru kide titularrek osatzen dute, eta Batzar Nagusiak aukeratzen ditu. Hiru urtean behin berritzen da.

3 pertsona



LEHENDAKARIEN BATZORDEA

Kontseilu Orokorren eta Idazkari Nagusiaren organo kontseilaria eta aholkularia da. Arauak proposatzeaz eta agindutako gaiak kudeatzeaz arduratzen da, hala nola, Gizarte funtsen banaketaz eta euskararen normalizazioaz.

Kooperatiba guztietako lehendakariak osatzen dute, eta lehendakari propioa du.

9 pertsona



KONTSEILU SOZIALA

Bazkide langileek Taldeko administrazioan parte hartze iraunkorra izan dezaten eraturako organoa da. Kontseilu Orokorraren aholkularitza eta kontsulta izaera du, eta bazkide langileei eragiten dieten gaiei buruzko irizpena ematea eta kooperatibetako Kontseilu Sozialak koordinatzea dagokio.

Gehienez ere 16 pertsonaz osatutako organoa da. Kooperatiba bakoitzari, gutxienez, ordezkari bat dagokio, eta kooperatiben tainaren araberakoak izango dira gainerako ordezkariak.

Urtero berritzen da Taldeko Kontseilu Soziala.

13 pertsona



 Emakumeak  Gizonak

IDAZKARI NAGUSIA

Kontseilu Orokorrak izendatutako pertsona da, eta Taldeko kargu betearazle gorena. Bere lantaldearekin batera, Taldearen plan estrategikoak eta kudeaketa planak diseinatzen eta egikaritzen ditu. Bestetik, Kontseilu Orokorrak onar dezan aurkezten diren proposamen teknikoak egitea ere badagokio.

Pertsona 1



ZUZENDARITZA KONTSEILUA

Idazkari Nagusiaren aholkularitza organoa da.

Taldeko kooperatibetako zuzendariak osatzen dute.

9 pertsona



KOOPERATIBETAKO GOBERNANTZA

Taldeko gobernantza egituraz gain, kooperatiba bakoitzak bere gobernantza organoak ditu.

Kontseilu Errektoreak



Zaintza Batzordeak



Kontseilu Sozialak



Zuzendaritza Batzordeak





GURE KONPROMISOA

Gure gobernantza eredu demokratikoa garatzen jarraitzen dugu.

**Lurraldean
errotutako talde
demokratikoa gara**

GURE KONPROMISOA

Arau markoa egokitzea

Bazkide izaeraren atalean aipatu dugu lan arloan izandako erreformaren ondorioz egokitzapenak egin ditugula iraupen mugatuko bazkide izaerari dagokionez. Aldaketa horiek ekarritako testu egokitzapenak, estatuetan eta barne erregelamenduan egindakoak, 2023ko Batzar Nagusietan onartu genituen erreferendum bidez.



GURE KONPROMISOA

Heziketa kooperatiboan sakontzea

Garrantzia berezia ematen diogu gobernu organoetan parte hartzen duten bazkideen trebakuntzari, organoen eta bazkideen arteko konfiantzan zein erantzunkidetasunean sakondu guran. Heziketa kooperatiboa oinarrizko palanka da erantzunkidetasunaren kulturaren eragiteko.

Saio horietan, identitate kooperatiboa indartzea, kooperatibaren funtzionamendua ezagutzea, gobernantza kooperatiboa ulertzea, arlo ekonomiko finantzarioko oinarrizko kontzeptuak lantzea eta Kontseilu Errektorearen zein gainerako organoen funtzioak, betebeharrak zein ardurak ezagutzea bilatzen da, besteak beste.

Formazio saio horietan, Fagor Taldeari buruzko edukia ere lantzen da, partaideekin Taldearen eskualde izaera eta zentzuari buruzkoak edota antolamendua eta eskumen esparru ezberdinen ingurukoak partekatuz.

Taldeko kooperatiba ezberdinetako organo kide zein bazkideentzako harrera saio bateratuak antolatzen ditugu, talde nortasuna eta atxikimendua sendotzeko.

Profil ezberdinetako kideek jardun dute formazio saioetan.

Bazkide berriak:

2 16

Kontseilu Errektoreak:

8 7

Kontseilu Soziala:

2 6

ONLINE FORMAZIOA

2023an, bazkide berriek formazio kooperatiboa online jaso dezaten, modulu bat garatu dute Lanki ikertegiak eta Fagor Ederlanek. Modulu horren eskaintza Fagor Taldeko kooperatiba guztietara zabaldu da urte bukaeran.

Heziketa kooperatibo eta harrera saioez gain, arreta berezia jartzen dugu *Kooperatibagintzan Aritu* izeneko graduondokoa, urtero, kooperatibetako pertsonen parte hartzea sustatuz eta ikasturtean zehar, partaideek garatzen dituzten proiektuei jarraipena eginez.

2022-2023 ikasturtean zazpi kooperatibetako hamar fagorkidek egin dute graduondokoa. Taldearentzat garrantzia handikoa da kooperatibetako organoetako kide direnen edo epe motz-ertainean organoetan presentzia izan dezaketenen formakuntzan sakontzea.

GURE KONPROMISOA

Komunikazioan eta gardentasunean sakontzea

Bazkideengandik gertu egon eta konfiantzazko harremanean sakondu guran, 2023an ere urrats berriak egin ditugu barne komunikazioan, euskarri berriak sortuz eta sortuak genituen zenbait hobetuz. Finean, komunikazioa oso loturik dago gardentasunarekin, eta uste dugu horretan sakontzea funtsezko dela kooperatiba taldeko kideak gertuago egon daitezen gobernu organoengandik, eta, oro har, proiektu sozioenpresarialarengandik.

2023an ere, bazkideen eskura jarri ditugu zenbait informazio euskarri, eta kanpora begirako komunikazioan ere jardun dugu.

2023an ere, ahalegin berezia egin dugu Fagor Taldeak urtean zehar egindakoak kooperatibetako bazkideengana hel daitezen. Besteren artean, Iraunkortasun Memoriaren bertsio laburtua eta bideo laburra egin ditugu kooperatiben eta Fagor S. Coop.-en Batzar Nagusietarako.



4.114

hartzaile, hileroko barne buletinean



892

kide, Fagor Elkarrekin plataforman



186


jarraitzaile, Telegram kanaletan



31.211

bisita, webgunean





**Pertsonak
erdigunean dituen
taldea gara**

PERTSONAK ERDIGUNEAN DITUEN TALDEA GARA

Harrotasunez esan dezakegu pertsonen eta komunitatearen ongizatea bilatzen duen eredua dela gurea. Kooperatiben helburua ez da kapitala metatzea, baizik eta gure pertsonak eta komunitateak epe luzera izango dituzten beharrak asetzea.

Pertsonok eraikitzen dugu etorkizuna, partekatutako proiektuarekiko erantzunkidetasunez, eta belaunaldi berriei guk jasotakoa baino kooperatiba hobea uzteko konpromisoarekin.

Elkartasuna da, lankidetzarekin batera, Fagor Taldea egituratzen eta norabidetzen duen ardatzekotako bat.





Gure ordainsari sistema elkartasunean oinarritzen da

Pertsonen eta erakundeen arteko berdintasunean eta elkartasunean sinesten dugu. Elkartasunaren aplikazio praktikoa nola egiten den gure ordainsari sisteman ikusten da argien, eta, horregatik, gure kooperatibetan ordainsarien maila 1-6ra dago mugatuta. Elkarri laguntzen diogu horrela.

Lanaren ordainsari nahikoa, bidezkoa eta solidarioa aldarrikatzen dugu pertsona guztientzat, betiere gure kooperatiben benetako aukeren barruan. Bazkideok ez dugu soldatarik jasotzen, kooperatibak ekitaldiaren amaieran lortzea espero duen mozkinaren hileko aurrerakina baizik.

Aurrerakinaren maila urtero finkatzen dugu horretarako definitutako arauaren arabera. Hor, kooperatiba bakoitzaren ekonomia eta ondarea hartzen dira kontuan, eta behar adinako autonomia eta malgutasuna mantentzen dira Taldeko kooperatiba bakoitzak testuinguru ekonomikoetara bizkor egokitzeke.

Kooperatiben artean aurrerakinetan sor daitezkeen aldeak konpentsatzeko, Ordainsarien Elkartasun Funtsa (OEF) daukagu. Funtse hori urtero elikatzen da kooperatiben emaitzetatik, ekitaldiko irabazien %5 horretara bideratzen baita. 2023an, 1.188.667 euro jaso dituzte Taldea osatzen duten zortzi kooperatibetatik bik.

Finkatutako aurrerakin mailak ezarriko du lanpostuek esleituta duten indizearen balioa. Gure kooperatibetako lanpostu guztiek indize estruktural bat dute zehaztuta, lanpostuaren eskakizunen arabera. Indize estruktural


horren arabera izango da lanpostu horretan dagoen pertsonak jasoko duen ordainsaria. Fagor Taldeko Balorazio Batzordeak zehazten ditu kooperatiba guztietako lanpostuen indize estrukturalak, eta, horrela, kooperatiba barneko eta kooperatiben arteko oreka bermatzen da. Lanpostuak, indize estrukturalaren arabera bost franjatan multzokatzen ditugu.

Gerentziak eta zuzendaritzako postuak dira indize altuena dutenak. Horiei dagokien ordainsaria finkatzeko, sektore bereko eta antzeko dimentsioa duten merkatuko erreferentziako enpresetako gerenteen ordainsariak hartzen dira kontuan. Taldeko kooperatiba bakoitzaren dimentsioa eta konplexutasun maila kontuan hartuz, elkartasun koefizientea aplikatzen da (%25 eta %40 artean), eta, horren ondorioz, kanpoko postu baliokideen azpitik kokatzen da gure kooperatibetako gerentzien ordainsaria. Horrela, kooperatibako postuen arteko elkartasuna eta barne ekitatearen printzipioa aplikatzen ditugu.

Gerentziako zenbatekoa finkatu ondoren, zuzendaritzako postuetakoa zehaztea ere Taldeko Balorazio Batzorde Teknikoari dagokio, hainbat irizpideren arabera. Zuzendaritza bakoitzari dagokion ordainsaria gerentziaren gehieneko indizearekiko ehuneko baten arabera izango da.

Gure bereizgarri nagusienetakoa den ordainsari sistema horrek, aberastasunaren banaketa orekatua ahalbidetzen du franja edo maila profesionalen artean.

Pertsona eta ordainsarien banaketa



- 1. Franja (lan indize tartea 1,00 - 1,35)
- 2. Franja (lan indize tartea 1,40 - 1,60)
- 3. Franja (lan indize tartea 1,70 - 2,00)
- 4. Franja (lan indize tartea 2,10 - 2,40)
- 5. Franja (lan indizea 2,50etik gora)

➤ Maila profesional baxuenetan dauden langileek (%54) kooperatibak sortzen duen **aberastasunaren %43 jasotzen** dute

ELKARTASUNA, ENPLEGUAN

LagunAro da Fagor Taldeko kooperatiba guztietako bazkideentzako borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundea (BGAE). Funtsean, bi motatako prestazioak ematen ditu: sistema publikoarekin modu mistoan estaliko diren kapitalizazio prestazioak (pentsioak), eta banaketa prestazioak. Azken horien artean, nabarmentzekoak dira osasun laguntza, aldi baterako ezintasuna eta enplegurako laguntza.

Birkokatzea

Birkokatzeari dagokiona da enplegurako laguntza mekanismoen artean aipagarriena. Birkokatzeak funtsezko mekanismo dira jardura mailaren jaitsiera duten kooperatibetan bertako bazkide langileen enplegarritasuna bermatzeko. Mekanismo horren bidez, jardura maila altuagoa

duten eta lanik barik dauden pertsona horiek onartzeko gaitasuna duten kooperatibetan birkokatzen dira jardura mailaren jaitsiera duten kooperatibetako bazkideak. Birkokapenak, aldi baterakoak edo behin betikoak izan daitezke. Behin betiko birkokapenen kasuan, kooperatiba hartzailean bazkide izaera hartuko du birkokatutako bazkideak, kooperatiben arteko lekualdaketa bidez.

Fagor Taldeak jarraipen berezia egiten die Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibako bazkide ziren eta aldi baterako birkokatuta jarraitzen duten pertsonen. Enplegu Batzorde Mistoak hiru bilera egin zituen 2023an, birkokatuen egoera, ikasketa maila, adina eta kontsolidazio aukerak aztertzeko. Kontseilu Orokorreko, Taldeko Kontseilu Sozialeko eta Taldeko Gestio Sozialeko buruen ordezkariek osatzen dute Enplegu Batzorde Mistoak.

LagunAro mailan, 2023ko abenduaren 31n, Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibako 297 bazkide ohi zeuden aldi baterako birkokatuta, horien %71, Fagor Taldean. Horiez gain, beste kooperatiba batzuetako 55 bazkide zeuden aldi baterako birkokatuta Fagor Taldeko kooperatibetan.

Behin betiko birkokapenei dagokienean, 2023 urtean zehar Fagor Taldeko kooperatiba batean kontsolidatu ziren LagunAro mailan kontsolidatutako bazkideen %88, 16 pertsona, hain zuzen ere. Azken bi urteetan 68 bazkide birkokatu dira behin betiko Fagor Taldeko Kooperatibetan, eta horietatik %90 dira Fagor Etxetresna Elektrikoetako bazkide ohiak.

Egutegi Mugikorra

Enplegurako laguntza prestazioak, era berean, aukera ematen die kooperatibei Egutegi Mugikorren modalitatea ezartzeko, jardura mailan izan ditzaketen goranzko joerei, eta, batez ere, beherezkoei, aurre egiteko. Beheranzko egutegiak sortutako ordu negatiboak berreskuratzeko aukerarik ez balego, ordu horien finantzaziorako laguntza eskainiko du prestazioak.

Erretiro Aurreratua

Erretiro Aurreratuen sistema da Fagor Taldeko bazkideen beste onuretako bat. Borondatezko, izaera orokorreko eta berdintasunezko planek osatzen dute, eta bazkidearen interes individuala kooperatibarenarekin uztartzea ahalbidetzen dute. Plan horiek aukera ematen diote bazkideari erretiroa alde aurretik hartzeko; eta, kooperatibei, plantillak gaztetzeko prozesuak bultzatzeko.

Kooperatibek egindako ekarpen ekonomikoen bidez gauzatzen dira erretiro aurreratuko planetarako laguntzak: planarekin bat egindako bazkidearen izenean egiten dira ekarpen horiek, eta, zehaztutako baldintzen arabera, legezko erretiro adina aintzat hartuta, erretiroa hartzeko data hiru eta bost urte artean aurreratu dezake bazkide bakoitzak.

Urtero eguneratzen da laguntzaren zenbatekoa. 2023an, 1974an jaiotako bazkideei zuzendutako planteamendua onartu da. 40.482,96 eurokoa izan da laguntzaren zenbatekoa.

GURE KONPROMISOA

Gure pertsonak euren onena eman dezaten, enpresa kultura aurreratu bat ari gara garatzen.

**Pertsonak
erdigunean dituen
taldea gara**





GURE KONPROMISOA

Enpresa kultura aurreratua eraikitzea

Ezagutzaren aroan, pertsonak gero eta garrantzia handiagoa dute enpresen lehiakortasunean. Pertsonen konpromisoaren, inplikazioaren eta talentuaren araberakoak dira, neurri handi batean, enpresa proiektuaren bideragarritasuna eta arrakasta. Horretarako, funtsezkoa da belaunaldi berrien nahiak eta motibazioak ulertzea, eta gure enpresa kultura eta egiteko moduak egokitzea, gure kooperatibak, etorkizunean ere, erakargarriak izan daitezen.

Pertsonak beraien onena eman dezaten enpresa kultura aurreratua eraikitzeko ari gara lanean, talde lana eta enplegarritasuna sustatu, aniztasuna kudeatu, pertsonen osasuna zaindu edota lana eta familia uztartzea ahalbidetuko duena.

GURE KONPROMISOA

Enplegagarritasunean sakontzea

Gure enpresen lehiakortasuna mantentzeko, funtsezkoa da ezagutza eta teknologia berriak txertatzen joatea. Ezinbestekoa dugun eboluzio horretan gure pertsonak atzean gera ez daitezen, modu aktiboan kudeatzen dugu beraien enplegagarritasuna. Zentzu horretan, eta testuinguru berrietara behar bezala egokitzeko helburuarekin, hainbat alorretan egingo dugu lan.

➤ Lan poltsaren laneratze ratioa **%51**koa izan da

FORMAZIOA

Kooperatibak dira beren langileen birkualifikazioa kudeatzen dutenak. Horretarako, urteko formazio planak diseinatzen dituzte Mondragon Unibertsitatea eta inguruko lanbide heziketako zentroekin elkarlanean.

BARNE PROMOZIOA

Barne promozioa da gure pertsonak beraien garapen profesionalean aurrera egiteko daukaten mekanismo nagusia. Barne promozio profesionala kooperatibaren barne erregelamenduak arautzen du, eta, hartan azaltzen denez, promoziorako lehenetsuneko irizpidea da bazkideen gaitasun profesionala.

Talde osora zabaldua, oposizio lehiaketa da lanbide promozioa ahalbidetzeko erabilitako mekanismoa, eta prozesura aurkeztutako hautagaien gaitasunak eta merezimenduak alderatzean datza, kooperatibetan sortzen diren promozio aukerak Taldeko bazkide guztiei zabalduz.

2023an zehar, 224 oposizio lehiaketa prozesu ireki dira. Prozesu horien ondorioz, 114 pertsona aldatu dira postuz modu estrukturalen, eta kooperatiben arteko lekualdaketa izan dira horietako bost.

BEHIN-BEHINEKO LANARI ERANTZUTEKO BEHARRA

Taldetik kudeatzen ditugu kooperatibetan sortzen diren kualifikazio txikiko zuzeneko langileen beharrak, horretarako sortuta daukagun lan poltsaren bidez. Poltsa horri esker, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten hainbat kolektibori eman diezaiekegu enplegua. Gaur egun, LagunAroarekin bat egina duten beste kooperatibetako bazkide langabeen kopuruak baldintzatzen ditu enplegua eskatzen duten kolektiboen enplegagarritasun aukerak, horiek lehenetsuna baitute behin-behineko enplegu eskaintzan.

Lan poltsaren erabilera/egoera

1.486

Izena emanda dauden pertsonak



761

Lanean aritu diren pertsonak



Laneratze ratioa



GURE KONPROMISOA

Kontziliazio erantzunkidea lantzea

Kontziliazioak erantzunkidetasunari lotuta egon behar duela uste dugu. Batetik, genero guztietako pertsonak aukera eta erantzukizun berdinak izan ditzagun, bai ordaindutako lanetan, bai ordaindu gabekoetan; eta, bestetik, lana eta familia bateragarri egiteak kooperatiben lehiakortasuna oztopa ez dezan, eta lan egiten duten pertsonen kalterik egin ez diezaien.

Norabide horretan, kontziliazio arau, neurri eta kanpoko praktiken inguruko hausnarketa saioa egin dugu 2023an, aditu baten laguntzaz. Gainera, datuen kudeaketari loturiko hobekuntzak egin ditugu. Hori, ezinbestekoa da aurrera begira urratsak emateko.

➤ Gure **langileen %5** **umeak zaintzeko** jardun murriztuan edo eszedentzian dago

 Emakumeak  Gizonak

Kontziliazio neurriak

Gurasotasuna



Eszedentziak



Murrizketak



Eszedentziak

Borondatezkoa



Negoziatua



Umeen zaintza



Kargu publikoa



12 urtez azpiko umeak zaintzeko baliatu dira murrizketen %80 –220 pertsona-. Murrizketarekin dauden emakume eta gizonen kopurua antzerakoa da (%48, emakumeak, eta, %52, gizonak), baina Fagorreko kolektiboa aztertzen badugu, emakumeen %6ak dauka jardun murriztua, gizonezkoen %2ak duen bitartean.

Eszedentziei dagokienez, borondatezkoak izan dira gehienak. Kasu horretan, gizonezkoak izan dira nagusi. Emakumezkoen erreparatuz gero, zaintzarako eszedentziak dira gehienak.

GURE KONPROMISOA

Genero berdintasuna sustatzea

Talde mailan komunean kudeatzen diren esparruetan genero perspektiba txertatzeko eta kooperatibetako berdintasun plan eta dinamiken arteko koordinazioa eta lankidetzaz bultzatzeko helburua du Taldeko Genero Berdintasun Batzordeak.

Honako hauek izan dira Taldeko Genero Berdintasun Batzordeak 2023an zehar emandako urratsak:

1) Lidergoa eta politika orokorra: bi urte igaro dira Taldeko Genero Berdintasun Batzordea martxan jarri genuenetik. Bi urte hauetan zehar gizartearen egondako bilakaeraren ondorioz kooperatibetako beharrak ere aldatzen joan dira. Aldaketa horien emaitzetako bat izan da pasa den azaroko bileran berrikusitako Taldeko Genero Berdintasun Batzordearen misioa.

Genero berdintasuneko eraldaketa prozesuak gidatu eta traxionatu, sare iraunkor bat elikatuz, partekatuz eta formatuz, kolektiboan eragiteko.

- 2) Formazioa eta sentsibilizazioa: 2023an zehar arreta berezia jarri dugu atal honetan. Maila ezberdinetako zortzi formazio saio antolatu ditugu urtean zehar –100 pertsona inguruk jaso du formazioa–. Horren bidez, Talde mailako lau organotan eta kooperatibetako idazkari teknikoekin eta lan arriskuen prebentzioko teknikariek egoteko aukera izan dugu. Bukatzeko, saio bereziak egin ditugu kooperatibetako berdintasun batzordeko kideekin.
- 3) Lankidetzan oinarritutako praktika da gurea, eta, aurten ere, aktiboki hartu dugu parte Mondragon mailan antolatutako praktika komunitatean. Gure beharretara egokitutako ordainsari erregistroak egiteko tresna sortzea da kooperatibek duten erronkatarako bat. Bide horretako urratsekin jarraitu dugu.
- 4) Gure burua posizionatu dugu. Komunikazioaren esparruan, sentsibilizazio kanpainak egin ditugu genero berdintasunarekin hertsiki lotutako egun zehatzetan, eta, gizartearen aurrean ere, horren alde kokatu dugu gure burua.



GURE KONPROMISOA

Euskara biziberritzeko planekin segitzea

Euskararen alorrean, honako misio hau zehaztu genuen Fagorren 2021-2024 epealdi estrategikorako: "Fagor Taldeak euskaraz lan egitera bidean, hizkuntzak kudeatuta, euskarari espazio propioak bermatuko dizkio". Horri begira dihardugu lanean.

Zentzu horretan, euskaraz lan egiteko bidean, ezinbestean dagokigu hizkuntzen kudeaketa egitea. Gure kooperatibetan hainbat hizkuntza bizi dira elkarrekin. Den-dena ezingo dugu euskaraz egin, eta horregatik da garrantzitsua hizkuntzen kudeaketa kontzientea egitea eta funtzio bakoitza zein hizkuntzatan egingo dugun erabakitzea. Kudeaketa horretan, euskarak leku esanguratsua izango du Fagorren, euskarari eskaintzen baitizkiogu espazio eta funtzio eskusibo eta propioak.

2023an, lau lan ildoren bueltan egin da lan.

1) Fagor Taldeko hizkuntza eskakizunen araua kudeatzea.

Fagorreko lanpostu guztiek dute euskara eskakizuna, eta gutxieneko maila euskaraz ulertzea da. Euskara ikasteko aukera bermatzen dugu eta horretarako baliabideak eskaintzen ditugu. Euskara ikasteko eta hobetzeko prozesuan, norbanakoaren, taldearen eta erakundearen egitekoak ari gara garatzen; euskara ikasteko eta erabiltzeko metodologia eraginkorrak martxan jartzen jarraitzen dugu.

2023an, hizkuntza eskakizunei loturiko arauaren kudeaketa hobetu beharrekoak identifikatu eta praktika desberdinak partekatu ditugu.

Ostera, erabileraren paradigmatik hasi gara lantzen euskara formazioa, *Aldahitz* moduko metodologiak aplikatuz.

2) Euskara erabiltzeko aukerak handitzea eta erabilera areagotzeko neurriak hartzea.

Euskararen erabilera handitzeko, beharrezkoa da horretarako aukerak aztertzea. Gure kooperatibetako lantaldeen euskara ezagutza aztertzen dugu, fokua eguneroko lanean jarriz, eta lantalde bakoitzaren ezagutzaren araberako erabilera helburuak zehaztuz.

Ekipoetan, arnasmuneak direnak identifikatu ditugu, eta horiek babestu eta berriak sortzeko bideak eskaintzen jarraitu dugu.

3) Euskarari funtzio propioak ematea.

Misioan esaten dugun moduan, hizkuntzen kudeaketaren baitan, eta euskaraz lan egitera bidean, euskarari espazio eta funtzio propioak ematen ari gara. Maila instituzionalean, bazkideekiko harremanetan eta arlo sozialeko proiektuak euskararen eremua izan behar dute. Eta oso garrantzitsua dena: euskaraz egin daitekeena euskaraz egin behar dugu. Horretarako, euskaraz gehiago sortzeko, hizkuntza teknologiak aprobetxatzeko bideak lantzen dihardugu.

Atal honetan aipatzekoak dira euskaraz sortzea baliatu eta bermatzeko hizkuntza teknologiek eskaini diezaguketuen aukerak. Horri begira, adimen artifizialaren txapelpean garatzen ari diren hizkuntza teknologiak ezagutzen eta probatzen hasi gara gure kooperatibetan, hainbat tresnen proba pilotuak abiaraziz. 2023an, Talde mailako topaketa bat ere egin dugu. Kanpoko beste hainbat forotan ere izan gara.

Lanpostuko euskara eskakizunen betetze maila

Kontratu berrietan:

%90

Lanpostu guztiak kontuan hartuta:

%80

4) Euskara biziberritzeko proiektuaren legitimazioa handitzea

Euskara biziberritzeko proiektuak legitimitatea behar du aurrera egingo badu, eta, horretarako, ezinbestekoak dira organoen inplikazioa eta kolektiboaren atxikimendua.

Organoek, euren agendetan dute euskara planaren gaia. Eta Lehendakarien Batzordean, Kontseilu Orokorrean eta Kontseilu Sozialean, jarraipena egiten zaie euskara adierazleei zein proiektuei.

Kanpora begira, eta Fagorrek duen gizartearekiko eta euskararekiko konpromisoari jarraituz, hainbat ekimenetan izan gara 2023an: *Indeus*, *Euskaragileak*, Euskararen Aholku Batzordeko arlo sozioekonomikorako taldea... Azpimarratzekoa, Fagorrek Gaitu ekimenari egindako ekarpena: 7.000 ahots grabaketa izan ziren Fagorrek barne mailan landuriko kanpaina berezi bati esker.

➤ **Fagorren 10 langiletatik 8**rekin euskaraz egin daiteke

➤ **Euskararen ulermena bermatuta**, laneko taldeen erdietan

➤ Fagor Taldeko Batzar Orokorra **euskara hutsean** egiten da

➤ Kontseilu Orokorrean, Kontseilu Sozialean eta Lehendakarien batzordean, **euskararen erabilera, %80tik gorakoa** da

➤ Taldean euskararen **ahozko erabilera %50ekoa** da

GURE KONPROMISOA

Talentua sortu eta erakartzea

Gure erakundeek behar duten talentua sortu ahal izateko, beharrezkoa zaigu lan eremutik haragoko neurriak ezartzea, tartean, ZTIM (zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikak) alorra sustatzea. Horretaz jakitun, hainbat egitasmo ditugu martxan hezkuntza eragileekin eta bestelakoekin elkarlanean.

LANHEZI PROIEKTUA

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI hezkuntza zientzia eta humanitate fakultatearekin eta Saiolanekin elkarlanean, enpresen eta lanbide heziketako zentroyen arteko harremanak sendotzea edota horien behar eta aukeretatik ikaskuntza prozesu konkretuak lantzea bilatzen du proiektuak. Hirugarren urtez, haren koordinazioan jardun du Fagorrek, Taldeko kooperatiben eta eskualdeko lanbide heziketa zentroyen arteko dinamikak eguneratu eta aukera berriak sortu guran.

FIRST LEGO LEAGUE

Etorkizuneko talentua sortzeko estrategiari erantzunez, First Lego League ekimenaren babesle izan da aurtien ere Fagor Taldea. ZTIM ikasketen inguruan 400 neska mutiko baino gehiago erakartzen ditu Mondragon Unibertsitatearen Arrasateko (Gipuzkoa) Campusera.

MONDRAGON ZTIM HUB

Debagoieneko ikastetxeen, enpresen, gizarte eragileen eta udalen arteko elkarlanaren bidez, heziketa sare egonkorra sortzea du xede. Proiektuko kide da Fagor Taldea. Hainbat helburu ditu sareak.



Gazteen artean zientzia, ingeniari, teknologia eta matematika sustatzea.



Alorrari lotutako lanbideak bistaratzea.



Genero aurreiritzirik bariko orientazioa sustatzea.



ZTIM jardueretan esku hartzea.



Ikastetxeetako hezkuntza proiektuetan eragitea.



GURE KONPROMISOA

Pertsonen osasuna zaintzea

Gure kooperatibetako pertsonen segurtasuna eta osasuna sustatzea, eta osasunarekin lotutako jarduera osagarriak egitea, kooperatibek zuzenean kudeatzen dituzten lanak dira, **Osartenekin** lankidetzan.


Bestalde, LagunAroren bidez, baja medikoagatik aldi baterako ezintasunaren prestazioa kudeatzen da. Alde horretatik, bai LagunAroren esparruan, bai Fagor Taldean, kezka areagotuz doa absentismo mailak azken urteetan izan duen goranzko bilakaerarekin.

Gaitasun hori optimizatzeko, LagunArok eskatzen du bere mediku taldea eta kooperatibetan aldi baterako ezintasuna kudeatzen duten mediku zerbitzuak elkarren artean koordinatzea. Ildo horretan, Talde osorako asistentziako zerbitzu mediku komuna ezartzeko aukera ari gara aztertzen.

Absentismo tasaren bilakaerari aurre egiteko neurri komunak ezartzea hobetsi dute Taldeko kooperatibek, baliabideak eskainiz eta neurri ekonomikoak ezartzeko azterketa eginez.

➤ **Absentismo maila** orokorra **7,27**

➤ **Lan istripuagatik edo/eta gaixotasun profesionalagatik absentismo maila** **0,46**



**Planetarekin
konprometitutako
taldea gara**

PLANETAREKIN KONPROMETITUTAKO TALDEA GARA

Larrialdi klimatikoak, eta, oro har, ingurune naturalak bizi duen degradazio azeleratuak, gure industria jarduera egokitzera behartzen gaitu, bateragarria izan dadin planetaren muga biofisikoekin. Horretarako, gure produktuek euren bizi zikloan ingurumenean sortzen duten inpaktua neurtzeko eta murrizteko ari gara lanean.

Gure industria planetaren muga biofisikoekin bateragarria izan dadin egokitzea, betebehar etiko bat izateaz gain, ezinbesteko baldintza da gure kooperatibak lehiakorak izaten jarraitzeko.



GURE KONPROMISOA

Gure produktu eta ekoizpen prozesuek ingurumenean duten inpaktua murrizteko lanean ari gara, industria jarduna planetaren muga biofisikoen barruan kokatzeko.

Planetarekin
konprometitutako
taldea gara

7 ENERGIA IRISGARRIA
ETA EZ KUTSAGARRIA



12 EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUAK



13 KLIMAREN
ALDEKO EKINTZA




GURE KONPROMISOA

Karbono aztarna murriztea

Taldea osatzen duten zortzi kooperatibetatik zazpik dute garatuta karbono aztarnaren hiru irismenak neurtzeko tresna, nahiz eta horietako batzuk oraindik hirugarren irismenaren kalkulua fintzeko prozesuan egon. Fagor Automation da tresna hori ez daukan bakarra, eta, ondorioz, kalkulua lehenengo eta bigarren irismenetara mugatzen duena.

Bestalde, 2023an, **SBT** (*Science Based Targets*) ekimenaren zertifikazioa lortu du emisioak murrizteko Fagor Ederlanen bide orriak. Eta beste hiru kooperatiba aritu dira beraien murrizpen helburu eta bide orriak zehazten: Copreci, Fagor Arrasate eta Fagor Electrónica.



	2021	2022	2023
2. irismena (tCO ₂ eq)	41.345	36.439	24.888
1. irismena (tCO ₂ eq)	80.101	83.829	32.333
tCO ₂ eq/fakturatutako 100m€	8,20	6,61	3,26
tCO ₂ eq/langile	10,32	10,40	4,82

➤ Gure lehen eta bigarren irismeneko **CO₂ isuriak %52 murriztu dira**

Karbono aztarnak murrizpen esanguratsua izan du 2023. urtean zehar, bai lehenengo irismenean, baita bigarrean ere. Urte horretan, kooperatiba mistoa zen Fagor Ederlan Tafalla lan elkartuko kooperatiba izatera pasa zen, Tafalla Iron Foundry S.Coop. izenarekin, eta, beraz, irten egin zen Fagor Ederlanetik eta Fagor Taldetik. Hortaz, haren isuriak ez daude Taldearen erregistroen barnean. Horrek azaltzen du, neurri handi batean, lehen irismenean izaniko murriztea. Bigarren irismeneko murrizteak, berriz, nazioarteko planta ezberdinak argindar berriztagarria kontsumitzen hasi izana du oinarrian.



GURE KONPROMISOA

Energia berriztagarrietan sakontzea

Energia sorkuntzaren alorrean bi lan ildo ditugu irekiak. Alde batetik, gure kooperatiben teiltuetan instalazio fotovoltaikoak ari gara jartzen, eta, beste alde batetik, aukerak aztertzen ari gara sorkuntza proiektu fotovoltaiko eta eoliko handietan parte hartzeko.

2023. urtean, Guadalajaran eraikiko den planta fotovoltaiko batean parte hartzea erabaki dute gure sei kooperatibek, Mondragoneko beste kooperatiba batzuekin batera. Planta horrek 7,86 Mw-ko potentzia izango du eta urtean 14.879 Mwh ekoitziko dituela aurreikusten da. Ondorengo taulan jasotzen da Fagor Taldeko kooperatibek izango duten parte hartzea:

BAZKIDEA	PARTE HARTZEA	URTEKO SORKUNTZA ESTIMATUA (MWh)
COPRECI	%5,65	841
FAGOR ARRASATE	%6,72	1000
FAGOR AUTOMATION	%8,13	1.210
FAGOR EDERLAN	%12,57	1.870
FAGOR ELECTRONICA	%6,72	1000
MONDRAGON ASSEMBLY	%1,64	244
	%41,43	6.164

Planta hau esperientzia pilotu bat izango da, bertatik ikasi eta potentzia handiagoko proiektuak sustatu ahal izateko.

Epe luzera begira, kontsumitzen dugun energia elektrikoaren herena gure jabetzakoak diren ekoizpen azpiegituretatik lortzea da xedea, autokontsumo instalazioen bitartez zein ekoizpen azpiegitura handietan partaidetza jakin bat izanda.

Energia kontsumoa Debagoiengan



Gure ekoizpen planta gehienak Debagoiengan daude, eta, ondorioz, lurralde eskala honetan ematen da energia kontsumorik handiena. Datuek adierazten duten moduan, Fagor Taldeak Debagoiengan dituen ekoizpen planta guztiek kontsumitzen duten energiaren %69 da iturri berriztagarrikoa. Hau posible da gure energia kontsumoaren elektrifikazio maila handiari esker –%71koa da–. Kontsumo elektriko hori iturri berriztagarriak erabiliz asetzen da ia bere osotasunean, bai epe luzeko energia erosketa kontratuen bitartez, baita kontsumitzen dugun energia elektriko berriztagarria dela bermatzen duten ziurtagirien bidez ere.

Debagoieneko plantetako energia kontsumoa (MWh)



Energia kontsumoa Euskal Herrian




Jatorri berriztagarriko energiaren % energia kontsumo totalarekiko:

%58 2022 **%72** 2023



Energia elektrikoaren % energia kontsumo totalarekiko:

%60 2022 **%74** 2023



Energia elektriko berriztagarriaren % energia elektriko totalarekiko:

%97 2022 **%97** 2023

➤ Erregai fosilen kontsumoa **%52 murriztu** dugu

Euskal Herrian, Debagoieneko joera errepikatzen da hein handi batean. Datu aipagarri moduan, esan daiteke Fagor Ederlan Tafallak kokea erabiltzen duela erregai bezala, eta kooperatiba honek Fagor Ederlan Taldeko eta ondorioz Fagor Taldeko kide izateari uzteak, murrizte nabarmena ekarri duela *Beste erregai fosilak* atalean, gas natural eta argindar kontsumoan bezala.

Euskal Herriko plantetako energia kontsumoa (MWh)



Elektriko berriztagarria

359.314 2022 **328.049** 2023



Elektriko ez berriztagarria

12.713 2022 **9.574** 2023



Gasa

148.481 2022 **118.056** 2023



Beste erregai fosilak

103.297 2022 **3.062** 2023

Energia kontsumoa mundu mailan



Mundu mailako datuak aztertuz gero, ikusi daiteke berriztagarria ez den energia elektrikoaren ehunekoa Euskal Herrian daukaguna baino handiagoa dela, 2022. urteko datuekin alderatuta nabarmen hobetu den arren. Gure helburua da atzerriko planten kontsumo elektriko iturri berriztagarriak erabiliz asetzea, baina herrialdearen arabera, oraindik orain, zailtasunak daude horretarako. 2023. urtean, argindar berriztagarria kontsumitzen hasia lortu da Fagor Ederlanek Brasilen duen plantan, eta, horri esker, nabarmen murriztu da ez-berriztagarria den argindarraren kontsumoa.

➤ Energia elektriko ez berriztagarriaren **kontsumoa %44 murriztu** dugu

Munduko plantetako energia kontsumoa (MWh)



GURE KONPROMISOA

Lehengai eta hondakinen kudeaketa zirkularra egitea

Industria iraunkorra eraikitzeak, lehengaien erabilera optimizatzea eta produktuen bizi zikloan sortzen diren hondakinak murriztea dakartza. Aipatzekoa da berotegi efektuko gasen emisioaren hirugarren irismenaren zati garrantzitsu bat lehengaien kontsumoari lotutako igorpenetatik datorrela. Horrenbestez, aztarna gutxitzen laguntzen du lehengai birziklatuak erabiltzeak, materialen zikloa ixtearekin batera, ekonomia zirkularren filosofiarekin bat eginez.


Gure konpromisoa aintzat hartuta, helburua da material birziklatuen ehunekoa handitzea eta hondakin gutxiago sortzea.

➤ Erabiltzen ditugun lehengaien **%75 jatorri birziklatukoa** da




Lehengaien erabilera

Jatorri birziklatua (t)



Lehengaiak guztira (t)



Jatorri birziklatuko lehengaien %a totalarekiko




Hondakinak

Hondakin arriskutsuak (t)




Berreskuratutako hondakin arriskutsuak (t)



Hondakin arriskutsuetatik berreskuratutakoen %




Hondakin EZ arriskutsuak (t)



Berreskuratutako hondakin EZ arriskutsuak (t)



Hondakin EZ arriskutsuetatik berreskuratutakoen %





GURE KONPROMISOA

Uraren kontsumo efizientea egitea


Edateko uraren eskuragarritasuna arrisku larrian egon daiteke klima aldaketaren ondorioz. Hori dela eta, gure instalazio gehienak ur eskasirik ez dagoen lurraldeetan egon arren, eta gure iraunkortasun estrategian gai materiala ez izanda ere, beharrezkotzat dugu ur kontsumoaren adierazleari jarraipena egitea eta hura murrizteko neurriak hartzea.




Ur erauzketa (m3)



Ura m3 / fakturazioarekiko (100m€)



Ur erauzketa langileko (m3)



Garapen komunitarioa bultzatzen duen taldea gara



GARAPEN KOMUNITARIOA BULTZATZEN DUEN TALDEA GARA

Fagor Taldeak iraunkortasunarekin daukan konpromisoa ez da barne mailara mugatzen. Komunitatearen autoeratzeari oinarri, konprometiturik gaude gure kooperatibak kokatuta dauden lurralde eta komunitateek iraunkortasunerantz egin behar duten bidearekin.



Garapen komunitarioa bultzatzen duen taldea gara


Fagor Taldetik aliantzak sustatzen ditugu gizarteko gainerako eragileekin, elkarrekin egin dezagun [Garapen Iraunkorrerako Helburuak](#) lortzeko bidea.

EAEko kooperatiben legeak ezartzen duenaren arabera, kooperatibok urteko irabazien %10 bideratu behar dugu Gizarte funtsera, haren bidez gizarte proiektu ezberdinak sustatu eta laguntzeko. Gure kasuan, %10 barik, %12 bideratzen dugu funts horretara, gizartearekin dugun konpromisoaren erakusgarri.

Gizarte funtsaren bidez, Garapen Iraunkorrerako Helburuen lorpenera bultzatu nahi dugu, eta, bide horretan, eskala anitzeko proiektuak lagundu ditugu.

Lau eskala ezberdinetan egiten dugu lan: Fagor komunitatea, Debagoiena, Euskal Herria eta mundua.

➤ **2,6 M€** bideratu ditugu **gizarte ekimenera**



GURE KONPROMISOA

Gizartearen autoeratzeari eta eragileen arteko lankidetzari sustatzen ari gara, herri eta komunitate iraunkorrak lortzeko.

Garapen komunitarioa
bultzatzen duen
taldea gara



GURE KONPROMISOA

Fagorreko komunitatea Garapen Iraunkorrerako Helburuetan inplikatzea

Garapen Iraunkorreko Helburuekiko konpromisoa erakunde mailakoa izateaz gain, Fagor Taldea osatzen dugun pertsonena ere izan dadin ari gara lanean. Horretarako, hainbat aukera eskaintzen ditugu beharrezkoa den eraldaketaren parte izateko.

Hainbat ekimen bultzatu ditugu esparru honetan.



FAGOR
Euskaraz

20 urte baino gehiago daramatzagu gure kooperatibetan euskara planak sustatzen, gure bazkide-langileek euskaraz lan egiteko aukera izan dezaten.

563.504 €



FAGOR
Elkarrekin

Gure bazkide-langileak Garapen Iraunkorrerako Helburuetan inplikatzeo dinamikak eta ekimenak sustatzen ditugu. Horien artean daude elkartasun kanpainak, gizarte eragileekin elkarlan dinamikak, boluntariotza lanak...


45.000 €



FAGOR
Mugi

Mugikortasun planen bitartez lanerako mugikortasun iraunkorra sustatzen dugu, besteren artean, bizikletaren edo patinetearen erabilera, garraio publikoa eta auto partekatua bultzatuz.

28.295 €




Fagor
Komunitatea
663.799 €



Etxetik lantokirako joan-etorrietan mugikortasun iraunkorra sustatzeko jarri genuen Fagor Mugi ekimena martxan 2020an. Ordutik, guztira, 925.562 km dira Fagor Taldeko bazkide eta langileok garraiobide iraunkorragoan egindakoak: heren bat bizikletaz, eta beste heren bat auto partekatuan.


2023ari dagokionez, 352.898 km egin dira modu jasangarriagoan 216 pertsonen artean.

Garraiobidearen arabera pilotutako kilometroak:




Urtez urteko datuen bilakaerak erakusten du Fagor Mugi programa sendotze bidean dela, izan ere, beste urte batez, gora egin dute kilometro iraunkorrek eta horren ondorioz isuri gabe geratu den CO2 kopuruak.

Egindako kilometroak




Aurreztutako CO₂ (Kg)



Erabiltzaileen bilakaera ere positiboa izan da 2020ko irailean Fagor Mugi programa martxan jarri genuenetik.

Erabiltzaile kopurua



> Fagor Mugi programa finantzatzeko, 28.295 € bideratu ditugu 2023an Gizarte funtsetik

Erabiltzaileen ahalegina saritzeko, pizgarri batzuk banatzen ditugu Fagor Mugi programan. 2023an, guztira, 130 erabiltzailek jaso dute sariren bat, Fago Mugi aplikazioaren bidez lortutako puntuen truke. Garraiobide publikorako Gipuzkoako MUGI txarteletako diru karga izan da gehien eskatu den saria.





FAGOR *Elkarrekin*

Fagor Taldeko kooperatibetako komunitatea indartu guran, Fagor Elkarrekin tresna jarri zen martxan 2022an, eta dinamika horri eutsi diogu 2023an. Erabiltzaile berriek eman dute izena tresnan, eta, urtea amaitzerako, 906 ziren komunitatearen parte (2022an baino 200 pertsona gehiago).

Oro har, 27 ekimen argitaratu dira Fagor Elkarrekin tresnan. Horietako bi boluntariotzarako eskaintzak izan dira (SMH eta First Lego League); hiru, dohaintzak egiteko eskaerak (Turkiako lurrikara, Grinpatia gaixotasuna eta Palestina); eta, bat, elikagai bilketa egiteko deialdia (Zaporeak).

➤ Horrez gain, 2023an **12.000 € ekarpena** egin diogu **EITB maratoiari**

Gainerako 21 argitalpenen bidez, ostera, gizarteko ekimen eta proiektuei buruzko informazioa helarazi diegu bazkideei, bai Fagor barruko dinamiken ingurukoak (Fagor Mugi, Fagor Herrigintza...), baita eskualdeko edo Euskal Herriko kanpainen ingurukoak ere (Errigora, Mundukide, Harreman, Tantai, Herri Urrats...).

Informazioa eskaintzeaz gain, tarteka, ekimen horiei loturiko zozketak egin ditugu 2023an.

➤ **Gizarte funtseko 45.000 €** bideratu ditugu **Fagor Elkarrekin** programaren baitako **ekimenen finantzaziora**



FAGOR *Euskaraz*

Kooperatibetako euskara planetako inbertsioetara bideratutako diru partida barnebiltzen du Fagor Euskarazek. Oro har, Taldeko eta kooperatibetako euskara biziberritzeko planak eta horietan zehaztutako ekintzak finantzatzeko ekimenetara bideratu ohi dugun partida da.

➤ **563.504 €** bideratu ditugu **euskara biziberritzeko planera**



GURE KONPROMISOA

Debagoiena eskualdearen garapen iraunkorra sustatzea

Debagoiengan daude kokatuta gure kooperatiben egoitza sozialak eta ekoizpen zentro gehienak, eta, horregatik, Fagor Taldeak konpromiso bereziz dihardu eskualde horrekin. Debagoiena eskualdean bultzatzen ditugun ekimenek epe luzeko esku hartze estrategia bati erantzuten diote, eta gure baliabide ekonomikoen gehiengoa bideratzen dugu horietara. Hauek dira eskualdean sustatzen ditugun ekimen nagusiak:

DEBAGOIENA 2030

Debagoienaren garapen iraunkorra bultzatzeko sorturiko sarea da [Debagoiena 2030](#). Debagoiena eskualdeak iraunkortasunerantz egin behar duen trantsizioak bailarako hainbat eragileren arteko elkarlana (unibertsitatea, erakunde publikoak, enpresak eta gizarte eragileak) behar duela sinetsita, Debagoiena 2030 iraunkortasun sarea sustatzeko apustua egin genuen Fagor Taldean 2018an. Epe luzeko apustua da, eta, eragileen arteko elkarlana oinarri, herri eta komunitate iraunkorrak lortzea du helburu nagusi. Askotariko ekimen eta proiektuak lantzen dira horretarako. Zehatz esanda, ondorengoak dira Debagoiena 2030ek lehentasuntzat dituen arlo nagusiak:

➤ **786.983 €** bideratu ditugu **Debagoiena 2030 ekimenera**

-  Industriaren eraldaketa, ekonomia zirkularrerantz.
-  Trantsizio energetikoa.
-  Mugikortasun iraunkor eta adimentsua.
-  Tokiko elikagaien ekoizpena.
-  Ekosistemen eta biodibertsitatearen zaintza eta berreskurapena.
-  Gizarte kohesioa eta inklusioa, laneratzearen bidezkoa.

2023. urtean zehar, arreta berezia jarri dugu trantsizio energetikoaren lanketan [Eraginez piztu](#) ekimenaren bitartez. Ekimeneko proiektuak diruz laguntzeaz gain, inplikazio berezia izan dugu komunitate energetikoen garapenean. Eskualdean sortzen ari diren komunitate energetikoen bazkide laguntzaile izateko konpromisoa hartu dugu, kooperatiben administrazioan eta kudeaketan dugun esperientzia komunitate energetikoen garapenaren zerbitzura jarriz.

Horrez gain, 200.000 euroko ekarpen ekonomikoa egin dugu D2030en aterkipean jaio den [Tantai baso jabe kooperatiban](#), zeinak basoek betetzen dituzten funtzio ekosistemiko guztiak aintzat hartuko dituen bestelako basogintza eredu bat bultzatzen duen.

GIZABIDEA FUNDAZIOA

[Gizabidea Fundazioa](#)ren bidez, 40 urte baino gehiago daramatzagu lurraldeko hezkuntza eragile kooperatiboekin lankidetzan, eskualdeko haurrei eta gazteei kalitatezko hezkuntza eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegituren finantzazioan lagunduz. Urte luze hauetan guztietan Mondragon Unibertsitatearen garapenarekin jardun du bereziki Gizabidea Fundazioak, hainbaten artean, ulertu duelako hezkuntza zentroa eragile estrategiko dela eskualdearen eta haren enpresa ehunaren garapenerako.


2022an hainbat hitzarmen sinatu genituen MGEP, HUHEZI eta Arizmendi Ikastolarekin, hamarkadako epealdian diruz lagunduko diren [proiektuak](#) zehaztuz.

➤ **586.983 €** bideratu ditugu **Gizabidea Fundaziora**

TOKIKO ELKARTEGINTZAREN SUSTAPENA

Fagor Taldeko kooperatibak leku hartuta dauden herrietako elkarten jarduna diruz laguntzera bideratu ohi dugu Gizarte funtsaren zati bat.

➤ **187.835 €** bideratu ditugu **tokiko elkartegintzaren sustapenera**



GURE KONPROMISOA

Euskal Herriaren garapen iraunkorra helburu duten proiektuak laguntzea

Euskal Herria da Fagor Taldearentzat hurrengo eskala naturala. Kasu honetan, gure eragite gaitasuna eskualde eskalan daukaguna baino murriztagoa da, eta, horregatik, gure esku hartzea mugatuagoa da.

FAGOR HERRIGINTZA

Garapen Iraunkorrerako Helburuei erantzun propioa eta berritzailea ematea helburu duten proiektuak laguntzeko lankidetzaren programa da **Fagor Herrigintza**. Euskal gizartetik sortutako ekimenak lagundu eta beraiekin lankidetzan aritzeko bitartekoa da. Deialdi publiko bidez kudeatua izan da, eta, orotara, hiru laguntza banatu ditugu.

2023an, Fagor Herrigintza lankidetzaren programaren bigarren edizioan, 17 proposamen jaso ditugu Fagor Taldearen webgunearen bidez. Proposamenak deialdiaren oinarriekin bateragarriak ziren edo ez aztertu ondoren, eta aurrez argitaratutako oinarrietan zehazturiko balorazio irizpideak kontuan hartuta, bozka fasera pasatzeko bederatzi proiektuak aukeratu dira Gizarte Eraldaketa Batzordean. Bukatzeko, gure kooperatibetako bazkideek, bozka bidez, Fagor Herrigintza lankidetzaren programako laguntza zein proiektuak jaso aukeratu dute.

Guztira, 327 pertsonak hartu dute parte bozka fasean. 2023an, ondorengo hiru proiektuak izan dira hautatuak:


Fagor Herrigintza programaren bidez bideratutako laguntza horiez gain, bestelako lankidetzaren aukerak aztertzeko konpromisoa ere hartu dugu lankidetzaren programara aurkeztutako eragileekin.

EUSKAL HERRI MAILAKO BESTELAKO PROIEKTUAK

Fagor Herrigintza lankidetzaren programaren dirulaguntzen onuradunetz gain, beste zenbait elkarterek ere jaso dute gure laguntza 2023an.

➤ **23.746 €** bideratu ditugu **Euskal Herri mailako bestelako proiektuetara**

- **Amillubi proiektua (Biolor): 60.000 €**
- **Haur eta gazte kirolarien desplazamenduetarako furgoneta egokitua (GKEF): 40.000 €**
- **Minbizi Topaketak 2024 (Iñurri): 20.000 €**



Euskal Herria
143.746 €





GURE KONPROMISOA

Garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzan jardutea

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Kooperatibismoaren bokazio unibertsalari erantzuteko eta garapen bidean dauden herrialdeei garapen komunitarioko prozesu endogenoak sortzen laguntzeko, **Mundukide Fundazioa** sortu genuen duela hamar urte baino gehiago Mondragoneko beste kooperatiba batzuekin eta tokiko hainbat Gobernu Kanpoko Erakunderekin batera. Batez ere, Mozambiken eta Brasilen dabil Mundukide, eta urteak daramatza, filosofia kooperatiboarekin koherentzian, bertako komunitateen garapen endogenoa sustatzen.


Patronatuko kide gara, eta modu aktiboan hartzen dugu parte Fundazioaren erronketan. Haren jarduera finantzatzeaz gain, gure kooperatibetako bazkideek aukera dute Mundukide programak dituen herrialdeetan kooperante gisa parte hartzeko.

➤ **224.793 €** bideratu ditugu
Mundukide Fundaziora

GARABIDE

Hizkuntza lankidetzan diharduen erakundea da **Garabide**, euskararen berreskurapen prozesuan izandako ikasketak beste herrialde batzuetako prozesuekin partekatuz eta haien esperientzietatik ikasiz. Hizkuntza gutxituen komunitateekin egiten du lan, horien garapen sozioekonomikoa hizkuntzaren berreskurapen prozesuarekin aberastu nahian.

➤ **10.000 €** bideratu ditugu
Garabide elkartera



Mundua
234.793 €



www.fagor.eu

